

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Vitoria-Gasteizko iparraldeko ingurabidea (1. zatia)” proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 1984ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Gasteizko iparraldeko ingurabide proiektua, 1. fasea” proiekturako okupatu behar den azalera handitzea. Kreditu atxikipena.

Arabako Foru Aldundiaren 1981eko urriaren 22ko erabaki baten bidez, behin-behineko onepena eman zitzaion Gasteizko iparraldeko ingurabide proiektuari.

1983ko urtarrilaren 10ean eginiko bilkuran, proiektu hori gauzatzeko beharrezko ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko espedientearen instrukzioa erabaki zen, onura publikoko arazoengatik.

Ondoren, 1983ko uztailaren 26ko erabaki baten bidez, desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerranda egin zen eta premiazko deklarazioa eskatu zen, zeina Eusko Jaurlaritzaren irailaren 5eko 189/1983 Dekretuaren bidez eman baitzen.

Errepide Zerbitzuak jakinarazi du premia dagoela bide-zorra egiteko Gasteizko 3 poligonoko 1514 lurzatian, modu horretan sarbidea izateko 1513 lurzatira; izan ere, kendu egin zen proiektua gauzatzeko, eta haren jabeak lehengoratzeko eskatu zuen.

Egin beharreko bide-zor horrek 108 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka landa lurretan, 366,12 euroan balioetsi da eta desjabetzapen espedienteko 91/200 finka eratzen du.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra edo helburu handiagotzeetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz. Gainera, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak jasotako premiaz okupatu behar hori egikaritu beharreko proiektuetako azalera handituei ere aplikatu behar zaie. Beraz, bidezkoa da proiektuak eragindako ondasun eta eskubide gehiago desjabetzea, premiazko prozedura bidez.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua badagoela jasoz eman duen txostena eta Desjabetze Atalak eman duen txostena ikusi dira.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. I. eranskinean xedatutako eran, “Gasteizko iparraldeko ingurabide proiektua, 1. fasea” proiektuak okupatu beharreko azalera handitzea, nahitaez desjabetzeko, aldi baterako okupazioetarako, zortasunak jartzeko eta, horien guztien ondorioz, aldatu beharrekoak aldatzeko.

Bigarrena. 366,12 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105-328/000), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eranskinean jasotzen den finkari dagokion balio justuaren kopurua, Desjabetze Atalaren buruak balio justuaren ordainketarako proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arabako Foru Aldundiako (Desjabetze Atala, Provintzia Plaza, 4 – 6. soilairua, 01001 Vitoria-Gasteiz) lokaletan ager daitezten, bertan jasotako egunear eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 19a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

VITORIA-GASTEIZKO IBARRALDEKO INGURARIDEA (1. ZATIA).  
CIRCUNVALACIÓN NORTE DE VITORIA-GASTEIZ (1ª FASE)

Esp./Expte. 1983/Z1-B

FINKAREN ZK	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA M2		EGUNA	ORDUA		
		POLIGONOA	LURZATIA				BEHIN- BETIKOA	ALDI BATERAKOA			EGUNA	HORA
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	TEMPORAL	SUPERFICIE AFECTADA M2	SERVIDUMBRE DE PASO 6 m		
91/200	FERNANDEZ DE LARRINOA LOPEZ DE IPIÑA, ELENA ORTIZ DE URBINA LOPEZ DE JUAN ABAD, M. JESUS FERNANDEZ DE LARRINOA ORTIZ DE URBINA, J. IGNACIO FERNANDEZ DE LARRINOA ORTIZ DE URBINA, ANA ISABEL FERNANDEZ DE LARRINOA ORTIZ DE URBINA, ARANTZAZU FERNANDEZ DE LARRINOA ORTIZ DE URBINA, AITOR	3	1514	VITORIA-GASTEIZ	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECAÑO				108		24/3/20	12,00